

FRANTSESAK, BRIGANTEAK ETA PLACIDO DE URRESTARAZUREN MOZKORRALDIA

Napoleonek munduaren dominatzea eskuetan uste duenean, bere boterea mailarik gorenena iritsia da. Espainiako kanpainarekin 1808 urteak lehenbiziko porrotak ekarri dizkio. Frantses gudaroztearen lehen banakuntza eta ahulezia sintoma hauek, Iberiar Penintsulako aktibotasun militarrean eta gerrilen borroka modu berrian koka ditzakegu.

Eremuaren ezaguera perfektu batetaz baliatzen diren gerrilari partida hauek, gehienbat laborariez osatutako talde txiki baina efikazak dira. Tropa erregularrei ahalik eta kalte handienak eginaz, arintasun osoz burutzen dituzte beraien ekintzak. Destakamentu txikiei zein unitate handiei enbuskadak hedatzen dizkiote, eta frantses indarrak handiagoak direnean sakabanatu ohi dira, beranduago elkartu eta etsaiari berriro punturik ahulenean erasotzeko.

Herri xeheaz osatutako gerrila ausart honek, gerra krudela egin zion frantsesari. Etsaiak ordea, gerrilari zein populuaren gain errepresalia izugarriekin erantzun ohi zuen.



Gure kondairaren gau ilunetan sarritan gertatutako gauza dugu frantses gudarozteak, putrearen harrapaketa-
rekiko joera imitatuaz, Lezon izatea. Ondoren dauka(n) 1811 urtean briganteek Lezon protagonizatutako pasadizoaren berri. («Brigante», edozein gerrilaritaz mintzatzekoan erabili ohi zen hitza dugu).

Uztailak 7. Igandea. Gaueko hamarrak inguruan beheko plazara iritsi ziren oinezko eta zaldizko gizon armatu batzu, briganteak deitzen ziren horietakoak. Berehala Lezoko kapitain kabuak (irakur ezak(n) alkatea), udaltzaina eta agindari bat zirela medio, Pasaiaiko plazaren komandante militar frantsesari parte eman zion. Gero frantses komandantea Lezora etorri zen bere troparekin.

Baina frantses tropa iritsi artean, jende armatu honek herrian zeuden zaldiak eskatu zizkion kapitain kabuari. Honek ezetz esan zuen ordea. Hala ere, indarrarekin, beraiekin eraman zuten zaldiak izan ohi ziren etxeak arakatzera. Eta etxe horiek miatu ondoren ez zuten bakarra ere aurkitu, ondorioz ezta eraman ere. Denbora berean berrogei razio, bere ogi, ardo eta haragiarekin, eta sei alkandora eskatu zituzten. Guzti horietatik soilik ardoa tabernan zegoela seguratu zitzaizkion tabernara jo zuten. Bertan behar adina ardoa jasotzeaz gain bederatzi libra ogi hartu zituzten. Horrez gainera, guztia garraiatzeko zaldi bat edo herritar baten zerbitzua eskatu zuten, baina ez zitzaien ez bat ez bestea

eman. Azkenean, ogia eta ardoa beraiek zeramaten zaldi batetan zamatu beharra izan zuten. Sasoi hartan, mehatxu eginaz tiro bat bota ondoren Lezotik urrundu ziren, seguraski Pasaiaiko frantses destakamentuaren hurbiltzeaz ohartu zirelako. Hamaikak inguru ziren.

Berehala komandantea bere destakamentuarekin iritsi zen. Briganteak nondik jo zuten informatu zirenean beraien jarraitzeari ekin zioten.

Frantses tropa ailegatu aurretik, Briganteak herrian zeudenean, Santos de Ansorena eta Placido de Urrestarazu, biak Lezotarrak eta arrantzaleak lanbidez, berriaren jakinnahiaz plazara hubildu ziren. Biak erabat mozkortuak zeuden, suertatzen zenaren aurrean era berean briganteei zein kapitain kabuari kasu egin ziotelarik. Lantze horietako batean Placido de Urrestarazuk zaplasteko bat eman zion kapitain kabuari. Ondoren Placido briganteekin joan zen, ez dakigu bere borondatez ala indarrean, dena dela beraiekin eraman zuten.

Placido herrira itzuli aurretik, Pasaiaiko komandante militarra briganteen jarraitzetik bueltan etorri zen bere destakamentuarekin. Gertatutakoaren, berri izan zuenean preso hartu zuen Santos de Ansorena, eta Placidoren ausentzian honen anaia, Joaquin de Urrestarazu, bahituri bezala eraman zuen. Guzti hori nagusien aginduak zirela eta.

Komandantea erretiratu eta bi ordu beranduago Placido de Urrestarazu berriro kapitain kabuaren aurrean azaldu zen. Honek egindakoaz damaturik zertorren galde egin zionean Placidok baietz erantzun zion, mozkorraldiaren eragina zela eta ez zekiela zer egiten zuen. Gero Placido Pasaiaiko komandante militarren presentziara eraman zuen. Bertan atxilotua izan zelarik.

Uztailaren 23an Lezoko kapitain kabuak Pasaiaiko komandantearen eskutitz bat jaso zuen. Bertan Santos de Ansorena edo Placido de Urrestarazuk, bietariko batek, hilaren zazpian plazan briganteekin dantzan egin zuela eta, informazioa eskatzen zion. Kapitain kabuak erantzun zion briganteak etorri ziren gauean inor ez zuela dantza egiten ikusi.

Zihur dakigu Placido de Urrestarazu eta Santos de Ansorena ez zirela fusi-latuak izan. 1821ean Placido de Urrestarazuk hogeita hamasei urte zituen. Urte berean, Santos de Ansorena hemeretzi marinel eraman zezakeen lau tonako arrantzuntzi baten patroia zen.

Iturria

LEZOKO UDAL ARTXIBO HISTORIKOA: «E sekzioa - 5 negoziakua - laugarren saila - lehenengo liburua» eta «E sekzioa - 6 negoziakua - lehenengo liburua - hirugarren espedientea».

LANDER ZURUTUZA
Aske 1 (1985)

